



FILM LABURREN ZIRKUITUA ESKUALDEAN

Hilaren 27an Amezketan eta Zizurkilen eta apirilaren 2an Tolosan, 8 film labur ikusteko aukera izango da 4

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO


hitza



Asteazkena
2009-03-18

VIIURTEA 1.656.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Antzezlanean maskarak erabiltzen dituzte aktoreek. N. LEGARRETA / HERNANIKO KRONIKA

MAKROPROZESUETAN OINARRITURIKO ANTZERKIA GUREAN

VILLABONA 'Txanobarrogorro' antzezlanea Hernaniko Azeri taldearen lana da; antzerkia, dantza, irudiak eta musika uztartzen dituzte 7



N. URBIZU

KIKE AMONARRIZ AURKEZLEA, IDAZLEA, SOZIOLINGUISTA...

«Bizitzaren absurdoak erlatibizatzen laguntzen digu umoreak»

TOLOSA HITZAren irakurleek eginiko galderak «gustura» erantzun zituen herenegun 2-3

Banakako Aizkolari Txapelketan lehiatuko da Anjel Arrospide

LEABURU 60 aizkolarik hartuko dute parte hiru mailatan banatuta 6

Vendetta eta Stupenda Jones taldeak ariko dira bihar, Bonberenean

TOLOSA Underdidfectaz eta Makulu Ken ariko dira gaur eskenatoki gainean 5

LIBURUA SALGAI

Salmenta:

Liburuaren prezioa: 18 €
Galtzaundi eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko Hitzako bazkideak: 14 €

Eskaintza bereziak:


5 liburu 80€
10 liburu 140€

Salmenta puntuak:

- Galtzaundi eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzako bulegoetan,
- Tolosako Aranburu, Babel eta Elkar liburudendetan,
- Ibarako Lurdes liburudendan,
- Villabonako Basajaun liburudendan.



1936KO GERRAKO
OROTZAPENAK
A TOLOSALDEAN ETA LEITZALDEAN



E **Elkarrizketa digitala** **KIKE AMONARRIZ** ▶ Telebista aurkezlea, idazlea, soziolinguista, umorista

«Umoreak bizitzaren absurdoak erlatibizatzen laguntzen digu»

Tolosa » HITZ Aren irakurleek bidalitako galderak erantzun zituen zuzenean; «gustura» aritu zen eta guztiak erantzuteko denbora hartu zuen.

ERREDAKZIOA

Arpegi ezaguna da guztiontzat Kike Amonarriz tolosarra. Garaiz eta gogoz heldu zen herenegun HITZ Aren erredakzioan irakurleekin zuen hitzordura, elkarrizketa digitalean. Hauek bidalitako galderei luze eta lasaitasunez erantzun zien, ohikoa duen umorea alde batera utzi gabe.

Nola ikusten duzu euskararen egoera eskualdean? Nola eta zertan eragin daiteke hobetzeko? (Nerea)

Aupa Nerea! Hauxe da galdera sakona saioa hasteko! Ezer baino lehen esango nuke euskarak sekulako aurrerapena egin duela azken hamarkada hauetan eskualdean. Egin kontu neu gaztea nintzenezan gazteon artean ez genuela batere euskararik egiten. Gaur egun berri zaur eta gazte guztiek dakite euskaraz, D eredua dugu nagusi, euskara dezente entzun eta ikusten da gure herri eta kaleetan. Baina asko dugu oraindik egiteke. Inpresioa dut euskararen aldeko dinamika moteldu egin dela eta premiazkoa iruditzen zait lortu duguna sendotu eta indartzea. Horretarako, erabilera areagotuko duten ekimenak indartu behar dira iruditzen zait, erabilera planak sektore guztietara zabaldu, paisaia linguistikoa euskararen presentzia bermatu, edo eusara bezalako eskualde batean kultur sormena bultzatu. Esku bete an dugu oraindik, eta ezin gara lokartu!

'Mihiluze'-n pasa zaizun xelebriariari bat kontatuko al zenuke? (Aitor)

Aupa Aitor. Aitortu behar dizut barreugarri egiten dugula *Mihiluze*-n. Kasu bat aipatzearen gogoratzen naiz behin *Tribuaren Berbak* proba hasi eta lehiakide bat pantailara begira jarri eta isil-isilik geratu zitzaigula, aurpegia zurbil... Ez zuen ezer esaten eta txorabiatu ote zentsatzatzen hasi ginen. Zer bait gertatzen al zaizu galdetu eta... «Bataurrekoak etxean ahaztu zaizkit eta ez dut ezer ikusten!» esan zigen. Eskerrak publiko artean graduazio beretsuko ikusle bat zegoen... Haren bataurrekoekin egin zuen saioa!

Ondo moldatzen al zara llazki Serrenorenekin? Niri pixkat nerbioso jartzen dit... (Haritz)



N. URBIJU

Kaixo Haritz. Ondo ez, primeran moldatzen naiz! Aurkezle aparta izateaz gain, pertsona zoragarria da. Biok oso desberdinak garen arren oso ondo hartzen duguelkar. Egin kontu ez dela batere erraza neska-mutil erlazioa modu naturalean pantailaratzea, eta niretzat behintzat, sekulako zorrotea da *Mihiluze* aldamenen llaski dudala egin ahal izatea. Ez dakit berak zer esango lukeen... Portzierto... nerbioso jartzen al zaitu? uuuuuuuuu

Badakit tarteka merkatu eta antzekoetan kontu berezi xamarren bila aritzen zarela (komikiak, euskaldunen inguruko erreferentziak egiten dituzten liburuxkak...), zein da euskaldunon inguruan topatu duzun bitxikeriarik harrigarriena? (Tolosarra)

Seguru tolosarra zarela? Ez nekien gure herrian espiak zeudenik!!! Arrazoi duzu bai; gustura ibiltzen naiz horrelako bitxikerien bila. Aurkitutako batzuk? Amazoniako indioak euskaraz mintzatzen ziren komiki frantses bat; haurrei euskaraz irakurtzen erakusteko txistek erabiltzen zituen 1910. urteko metodo bat, iparraldeko batek Bartzelonan argitaratua edo *Alderdi Komunistaren Agiria* Errumanian inprimatua eta Parisen argitaratua...

'Txiskola'-rekin bete-betean as-

matu zenuten, noizko horrelako saio bat? (Joxe)

Kontxo Joxe! *Mihiluze*-rekin ez al dugu bada, bete-betean asmatu? *Txiskola*, txistegintzan bete-betean ari nintzen bolada batean egin genuen, eta *Mihiluze* azken urteotan izandako esperientzietan eta lanetan oinarriturik sortu da. Garaia ere asko aldatu dira eta ez dakit gaur egun txistek ardatz dituzten saio batek funtzionatuko lukeen.

Gazteen artean euskaraz hitz egitean gaztelera askotan sartzen dutela esan izan duzu. Gauregun-egoera zein da? (Manu)

Aupa Manu, ketal? 1980an Tolosan gazteen arteko euskararen erabilera ez zen %10era iristen eta gaur egun %50aren inguruan dabil. Hizkuntza guztiek, beti hartu izan dituzte beste hizkuntzen hitzak eta esamoldeak. Proporzioan dago kontua. Eta bestetik ezin dugu ahaztu, erdaratik euskaraz datozen ezinbestean tartekatuko dituztela hizkuntza menperatzailearen berbak. Ezin dugu ahaztu, Tolosa bezalako herrietan euskara kaletik desagertuta egon dela hamarkada luzeetan eta gaztelaniaren indarra sekulakoa dela. Horiek esanda, iruditzen zait, zerbait indartsua, grazioso edo adierazkorra esateko beti gaztelaniara jotzea luzera begira kaltegarria gerta

dakigukeela. Horregatik, oso garrantzitsua da, kaleko hizkera indartzea, eta euskarak dituen baliabideak erabiltzea, euskararekin jolastea eta sormena bultzatzea. Zenbat eta euskara gehiago egin eta euskarazko produktuak zenbat eta gehiago kontsumitu, orduan eta euskara hobea egingo da; nahiz eta ez izan gaur egun hitz egiten duguna bezalako.

'Mihiluze' saioari buruz: audientzia datuak konfetsatzeko modukoak al dira? Zenbateraino luza liteke telebista saio baten bizia? ETBren euskarazko ekoizpen proiektuak zer iritzi duzu? (Markox)

Kaixo Markox! Ez dira ba konfetsatzeko modukoak izango! Interneten aurki ditzakezu eta! Ikasturte honetan, batez beste, ikusleen ia %5a lortu du saioak. Datu hori, ETBren testuinguruan oso datu ona da, eta aurreko denboraldietan lortutako audientzia-emaizak baino hobea. Kontent gaude, beraz. Noiz arte luza daitekeen saio baten bizitza? Prime-timero saio baten kasuan, audientzia-datuak eta saioaren interesarekiko telebistaren zuzendaritzak izan dezakeen iritziak erabakitzen dute hori. Baina muga finkorik ez dago. Nolanahi ere, gure ordutegian, garrantzitsua da, ahalik eta ikusle kopururik handiena lortzea; jendea

euskarazko kateari begira ez bada (telebista lokalen salbuespenarekin), erdarazko katei begira da goela esan nahi baitu. Eta ETBren ekoizpen proiektuak, oro har, esango dizut, berrietan lanean ari direnek sekulako ahaleginak egiten dituztela ahalik eta saiorik txukunak egiteko, nahiz eta beti ez den asmatzen, eta oso zaila den estatu osoko erdal kateekin konpetitzea. Hala ere, iruditzen zait, euskarazko ekoizpen proiektuak indartu egin behar direla.

Zein da zuretzako Euskal Herriko pertsonairik graziosoena? Kirolari graziosoena? Aktore graziosoena? Politikari graziosoena? (Igor)

Kaixo Igor: Pertsonaien artean, *Berria*-ko *Zahilbixt* eta *Zaldi Eroa*-ren tribu guztia nabarmenduko nitzuke. Famatuekin egin ditugun *Mihiluze*-etan, esate baterako, harrituta geratu nintzen Abel Barriola, Mikel Astarloza edo Leire Olaberriaren umorearekin. Aktoreen artean, *Wazemank*-eko tropa noiz itzuli zain nauzu, eta politikarien artean... Aizue! Noiztik ez dugu barrerik egin politikari batekin? **'Mihiluze'-n badago tarte bat non euskarazko kartelak, abixuak, eta abar oso gaizki, penagarri ateratzen diren. Zer sentitzen duzu gure herrian gure herriko hizkuntza honela zapaltzen dela ikustean? (Idoia)**

Kaixo Idoia: Guk hasteko, barre egiten dugu, aukeratzen ditugun horiek txistea egiteko edo gag-ak sortzeko aukera eskaintzen digutela. Batekik, horrenbeste egoteak esan nahi du, euskararen erabilera zabalitzen ari dela; erabiliko ez balitz akatsak ere ez bailirateke egingo. Eta gero ondo bereiztu behar dira, intentzio onez, eta euskara erabili nahi dutelako, herritar xumeek egiten dituztenak edo utzikeriagatik horrelako akatsak egin eta zuzentzen ez dituzten erakunde edo enpresa handien artean. Kontuz ibili behar dugu, herritarrengan gehiegizko beldurra ez sortzeko; baina erakunde eta enpresa handien kasuan, herritar gisa ondo tratatuak izatea eskatu behar dugu. Azken boladan, hala ere, horrelako batzuk zuzendu dituzte. ONCEk esate baterako, publizitate-kampaina oso bat zuzendu zuen iaz. Ez da seinale txarra.

Saio gehienak umoreari buruzkoak izan dituztu. Nondik datorkizu umorearen sen hori? (Miren)

Kaixo Miren: Gazte garaian kirolari trebeak ez ginenok eta gorputz lerdan eta txitxitxirinkorik ez genuenok zerbait asmatu behar genuen, ligatu nahi bagenuen! Umoreak gainera bizipoza ematen digu, bizitzaren absurdoak erlatibizatzen laguntzen digu eta eguneroko bizimodua atseginagoa egiten digu. Eta niretzat, obsesioa izan da, euskara aspektu positibo eta erakargarriekin identifikatzea. Umorerik gabe ezin da bizi!

Euskaldunok ez dugula graziazirik

diote batzun batzuk, horrela dela uste duzu? Eta tolosarron kasuan? (Jaione)

Zer moduz Jaione? Garbi dago Inauterietan ez dagoela umorerik, San Ferminetan jende guztia triste ikusten dela, bertso-afariak negar egiteko besterik ez direla, *Wazemank*-ekin inork ez duela barrerik egiten, *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* bel-durrezko filma dela... Nork esaten du euskaldunok ez dugula graziarik? Holandarrek? Egiptoarrek? Katalanek? Topiko hori, duela gutxi sortua da, eta erreferentzia bezala umore andaluzia besterik ez dutenek indartuta (eta izugarri gus-tatzen zait umore andaluzia). Esate baterako, XVI. mendean hemendik pasa zen Navagieri bidaiari italiarrak esaten zuen euskaldunak oso umoretsuak zirela, eta espainiarrak aldiz solemneak eta serioak... Eta hala ere, pentsatzen dut euskaldunon artean umorea gehiago jorratu beharko litzatekeen generoa dela...

Botako al zenedake bat bateko txiste bat? (Jokin)

Lanbide zaila jarri didazu Jokin! Galdera bat egingo dizut (mesedez, errazale amorratuak zaretenok ez jarraitu irakurtzen...) Joan den larunbatean bi berastegiarek gertatutako kasua kontatuko dizut. Bata Errealzalea da eta bestea Atletikzalea. Sekulako parranda u du dute eta goizeko 8ak aldera autoa hartu behar izan dute Berastegi bueltatzeko. Ba al dakizu nork gidatu duen autoa? Errealzaleak! Hogei kopa gutxiago daramazkialako!

Laskorain ikastolako lehendakari zarelara eta, zein erronka ditu ikastolak? (Ander)

Kaixo Ander! Ikastolak, eta Hezkuntza sistemak oro har, berebiziko ahaleginak egin behar ditu gaurko gizarteak planteatzeko dituen behar berrietara egokitzeko. Irakasleak eta hezkuntzako profesionalak, sari, gutxiegi eskertzen den lana ari dira eginen, ilusioz eta kement handiz. Gure kasuan, horren adierazle da jaso berri dugun urrezko Q-a. Aurrera begira ditugun erronkak ugariak dira: kalitatezko prozedura horretan sakontzea, baloreen heziketa sustatzea, adimen emozionala, euskararen lanketan jarraitzea, teknologia berrien erabilera indartzea, Kurrikulua berria barneratzea, azpiegiturak hobetzea... Sinestua nago, Hezkuntza komunitatea osatzen dugun profesional, guraso eta ikasle guztien partaidetza sakonduz lortuko dugula.

Nola iritsi zara telebistako aurkezleizatera? Zein izan da mundu honetan egin duzun ibilbidea? (Luiza)

Kasualitatez Luiza! Txiste-kontari ari nintzela, saio batzuetan parte hartzeko eta *Funtzioan* gidoilari bezala jarduteko eskatu zidaten... eta animatu egin nintzen. Eta halako batean Aitzpea Goenagak eta Elena Iruretak deitu zidaten, pres-

atzen ari ziren *Hau da A.U.* saioan aktore gisa parte hartzeko. Aurretik ez nuen sekula aktore-lanik egin baina gauza berriak probatzea gustatzen zaidanez baietz esan nien. Ondoren, Andoni Egañiak aurkezten zuen euskararen inguruko *Balinda* lehiaketan ere parte hartu nuen euskararen inguruko bitxikeriak azaltzen Miren Azkararekin batera eta ondoren txisteen inguruko programa bat egiteko aukera sortu zen eta hala estrenatu nintzen aurkezle modura *Txiskola*-n. Ondoren etorri ziren *Sikofonia* edo *Bai, zera!* bezalako saioak. Eta bolada batez telebistatik kanpo ibili ondoren, *Mihiluze* proiektua burutzeko aukera sortu zen. Aurkezle lanetan eroso sentitzen naiz eta asko disfrutatzen dut eta gainera, barruan duguna komunikatzeko sekulako aukerak eskaintzen dizkizu. Alde horretatik, pribilegiatua sentitzen naiz eta nire eskerrik beroenak eman behar dizkio, lan hori eroso eta modu egokian egin ahal izateko, programaren prestaketa-lanetan aritu ziren guztiei eta eguna joan eguna etorri lanean ari den lan-talde guztiari! Urre gorria dira! Uzta pantailan agertzen garenek jasotzen dugu, baina beraie esker azaltzen gara azaltzen garen bezala.

Familia ere baduzu: errex konbinatzen da telebistako lana eta familiararekin egoteko denbora? Eskerrik asko Kike! (Luiza)

Eskerrik asko zuri Luiza! Telebistako lana bakarrik balitz! Ez da erraza ez, lanak konbinatzea eta denetara iristea, eta askotan familiarak nozitzen du beste esparruetan sartutako denbora horren falta. Egoerak honen desorekasortzen du etxe barruko ardura eta lanetan. Kontziente naiz horretaz, eta nire zatia betetzen ahalegintzen baina ere, badakit, lan-karga hori dela medio ez naizela etxean egin beharko nukeen guztira egitera iristen. Ez dute meritu makala ni bezalako bat aguantatzen. Horrela gabiltzanok sekula ez diegu eskertuko etxei behar bezala egiten duten guztia. Bihoazkie hemendik nire eskerrik beroenak.

Aupa Kike! Badakit galdera oso tipikoa dela, baina egin egin behar dizut: Zer egin daiteke euskararen egoera hobetzeko? (Maitane)

Labur erantzungo dizut Maitane: Egin, egin eta egin. Hortik aurrera dugun profesional, guraso eta ikasle guztien partaidetza sakonduz lortuko dugula.

Eta eremu ez hain euskaldunetan, euskaratik ikastetxean bakarrik erabiltzen dutenen kasuetan, non dago akatsa? Hezkuntza sistemaren arazoa da bakarrik? (Maitane)

Inola ere ez, Maitane: Irakaskuntza ezinbestekoa da baina ez da nahikoa. Eremu erdaldunenetan, irakaskuntzarekin batera ezinbestekoa da eskola orduz kanpo eus-

kararen erabilera sustatzea; batez ere, haur eta gazteen gustuko diren jarduerak euskaraz eginez, euskarazko kultur kontsumoa sustatuz eta etxeetan gurasoen aldetiko motibazio baikorra indartuz.

Iepa! Aurrera begira zein proiektu darabilzu buruan edo esku artean? euskarak, telebista... (Aitziber)

Kaixo Aitziber: Oraingo, eta horretarako aukera dugun neurrian *Mihiluze*-rekin jarraitzea da nire asmoa. Horrelako proiektu batek dedikazio handia eskatzen du eta horretara bideratuak ditut nire indarrak. Hortik aparte, gazte hizkeren inguruko lan batzuk ere baditut eskuartearen eta horietan jarraitu nahi nuke. Gero gero-koak!

Potokume dakzue 'Mihiluze' saioan. Bertsok gustatzen al zaizkizu? Eta ze bertsolari gustatzen zaizu?

Hara! Honi sinatzea ahaztu zaiot! Bertsok asko gustatzen zaizkit. Bertsok-eskolan ere ibili nintzen bolada labur batez eta bertso txarren bat osatzea ere iritsi naiz... Koldo Izagirrek zioen bezala, euskaldun guztiak gara bertsolari frustratuak! Bertsolari asko ditut gustuko baina orain ez naiz hasiko ikerketan botatzen zerrenda luzea aterako litzaidake eta!

Famatuei egiten zaien galdera da hau: kaletik lasai ibiltzen zea edo tarteka jendeak agobiatzen al dizu? (Patri)

Aupa Patri: Esker oneko hitzak besterik ez ditut jendearekiko. Kaletik lasai ibiltzeko inolako arazorik ez dut eta gainera, jasotzen duguna aldeko hitzak eta maitasuna besterik ez da; agobiorik ez, bezain (beti dago salbuespenen bat, baina ez aintzat hartzeko modukorik): azken batean gure fama tribuaren barruko fama dela esan daiteke eta nire kasuan behintzat, oso eramgarria da.

Euskal komunikabideen inguruko zer iritzi duzu? (Imanol)

Txapela kentzeko moduko da euskal komunikabideek egiten duten lana. Gehienak baldintza eskasetan aritu arren, egunez egun, euskaraz bizi nahi dugunoi informazioa euskaraz helarazteko egiten dutena txapela kentzeko moduko da. Euskarazko komunikazio esparrua oraindik ere ahula da, eta denon egingizuna da (administrazioa, komunikabideak, kontsumitzaileak) esparru hori indartzea, merkatua zabaltzea eta eskara berriei erantzungo dieten eskaintza berriak sortzeko baldintzak hobetzea.

Erori al da inoiz foko bat platon? Eta brageta zabalik duen norbait ikusi duzu? (zure fan bat)

Fan honek asko daki! Saioak grabatzen hasi aurretik hainbat broma egiten diogu berraratzen den publikoari... baina aizu! Zer esaten dugun jakin nahi duenak, joan dila grabazio batera!



Iker Epeldek bigarren egin zuen, Xabi Leundak ez zuen bere marka hobetu eta Lander Gil hirugarren geratu zen Espainiako Txapelketan. HITZA

Gil, Leunda eta Epelde «bikain» Espainiakoan

Tolosa » Tolosa CFko hiru atletek marka onak lortu zituzten pasa den asteburuan, Oviedon jokaturako txapelketan.

ERREDAKZIOA

Pasa den asteburuan Gazte mailako (92 eta 93. urteetan jaiotakoak) pista estaliko Espainiako Txapelketa jokatu zuten Oviedon (Espainia). Tolosa CFk izan zuen ordezkariarik, hiru atleta izan zirelarik bertan.

Batetik, Lander Gil aritu zen. Honek 60 metro hesietan hirugarren egin zuen, 7^o eta 96 ehuneko markarekin. «Pena» izan zen lehenengoa zihoalarik laugarren hezia ukitu eta pittin bat desorekatu zelako. Hala ere taldeko arduradun

neso oso positiboki baloratu dute bere lana.

Xabier Leundak, bestalde, 60 m. hesietan ez zen bere marka hobereenetik gertu ibili eta ezin izan zituen sailkatze lasterketak gainditu.

Azken ordezkariak, Iker Epeldek bigarren egin zuen 400 metroko lasterketan 50^o 53 ehuneko markarekin.

Zoriontzeko moduan, beraz, Ivan Gallegok entrenatzen dituen mutilak zilarrezko eta brontzezko domina bana ekarri baizituzten.

Datorren astebukaeran Oviedo kadetean mailako pista estaliko Espainiako Txapelketa jokatu dute. Bertan Tolosa CFko hiru atletek parte hartuko dute: Patxi Elosegi eta Aitor Arraiza ikaztegi-tarrak luzera jauzian eta pisu jaurtiketan hurrenez hurren eta Irune Agirrezabala 60 m. hesietan.

Laburrak

Gizonen afaria izango da San Jose Eguna dela eta

ALKIZA » Gizonekoentzako afaria antolatu dute Asteasuko Sarasola Sagardotegian gaurko, Aitarean Eguna dela eta. Ineratsatuek izena oraindik Elizegi taberna eman de-lakazakete.

Baztanera irteera antolatu du Alkartasuna biltokiak

ANOETA » Alkartasuna biltokiak Baztanera bidaiari antolatu du apirilaren 16rako: autobusez joango dira, inguru bisitatu eta ondoren bazkaria egingo dute. Izena biltokian bertan eman daiteke.

Euskarazko VII. Film Laburren Zirkuitua hilaren 27an iritsiko da eskualdera

Zinema » Hilaren 27an zortzi film izango dira ikusgai Amezketan eta Zizurkilen, eta apirilaren 2an, berriz, Tolosan.

ERREDAKZIOA

Topaguneak Euskara Elkartearen Federazioak urtero antolatzen duen Film Laburren Zirkuitua abian da. Martxoaren 5ean ekin zion, eta apirilaren 7ra arte euska-

razko zortzi filmaz osaturiko 47 emanaldi eskainiko ditu Euskal Herriko nahiz kanpoko 46 herri eta hiritan, iaz baino hamar gehiago. Eskualdeari dagokionez, Amezketan, (martxoaren 27an, balioanitzeko gelan, 19:30ean) Zizurkilen (martxoaren 27an, Atxulondon, 20:30ean) eta Tolosan (apirilaren 2an, Kultur Etxean, 20:00etan) izango da ikusgai.

«Euskarazko film laburren urteko produkzioa ezagutaraztea, eta, bide batez, herrietako kultur

eskaintza aberastea» da ekimen honen helburua. Aurtengoan, 2007-2008aneko zortzi film labur ikusteko aukera izango da ordubetik inguruko saioetan. «Aurrekoetan bezala, ahalegina egin dugu ibilbide luzeko egileak eta egile berriak kontuan hartzeko eta, iazko harrera ona ikusita, aurtengoan ere Kameratoian, Topaguneak antolatutako Ikus-entzuzkoen Rallyan saritutako bi lan sartu ditugu», azaldu dute antolatzaileek.

Filmak ikustez gain, saio asko-

tan solasaldia egingo da egileekin, proiektzioaren ostean, izan ere, «batzuek zein besteek biziki esker-tzen dute iritzi-trukerako aukera».

Berezitasun bezala, aurtengo emanaldietatik bost Euskal Herri-tik kanpo izango dira. Estreinaldia Erroman izan zen martxoaren 5ean, eta Bartzelona, Paris, Shanghai eta Londonen ere izango dira saioak. Parte hartzeko aukera eskaini zieten atzerriko zenbait euskarari elkarte eta euskal etxeri, eta «erantzuna ezin hobea izan da».

Oporretan joateko eskaintza zabala Harizpe elkartearekin

ERREDAKZIOA

Harizpe jubilatua eta pentsiodunen elkarteak apirila, maiatza eta ekainarako oporretan joateko hainbat proposamen prestatu ditu.

Apirilaren 17tik 26ra, Tenerifera bidaiara egingo dute. Bazkideek 670 euro ordaindu beharko dute, eta ez bazkideek 676. Apirilaren 13ra arte egongo da izena emateko aukera, eta une horretan 100 euro ordaindu beharko dira.

Maiatzaren 11tik 17ra, berriz, Galiziarra bidaiara antolatu dute. Bertako hainbat zonalde ezagutzeko aukera izango da bidaiari. 255 euro kostako zaie bazkideei, eta ez bazkideei, berriz, 260 euro. Hilaren 23tik maiatzaren 7ra arte izango da izena emateko aukera.

Azkenik, ekainaren 1etik 15era Playa de Arora (Girona) bidaiara antolatu dute. Bazkideek 391 euro eta ez bazkideek 397 ordaindu beharko dute. Hilaren 23tik maiatzaren 21era arte izango da izena emateko aukera.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

» ZIRKUIUAN IKUSGAI IZANGO DIREN FILM LABURRAK

'Kabia'



■ **Egileak.** Eider Rodriguez, Nagore Arozena, Garazi Rodriguez, Egoitz Sanchez, Garazi Sanchez, Maialen Sukunza, Amaia Uribe.

■ **Sinopsia.** Bakarrik egon eta hutsune hori betetzen duen norbait bilatu. Pertsona asko ezagutu baina ez zuk nahi duzuna. Behin eta berriz saiatu emaitzarik gabe. Bakar dadea gero eta handiagoa da, perfekzioa lortzeko ezintasuna bezala. Baina hainbeste bilatu ondoren, perfekzioa existitzen ez baldin bada?

■ **Urtea.** 2007.

■ **Hizkuntza.** Euskara.

■ **Iraupena.** 8 minutu.

'Lo bakarrik'



■ **Egilea.** Iban del Campo Uribarrena.

■ **Sinopsia.** Bakarrik lo egitearen eta lo bakarrik egitearen artean, badago alde. Insomnioak jotako emakume honek dena probatu du, eta hala ere ezin. Ezagutzen du inork lokartzeko moduren bat, protagonista prest dago edozertarako.

■ **Urtea.** 2008.

■ **Hizkuntza.** Euskara.

■ **Iraupena.** 14 minutu.

'Musika'



■ **Egilea.** Asier Urbietta San Martin. 1979an Oreretan jaio zen. Zuzendari laguntzaile bezala lan egiten du publizitate eta zinean, telebistatan tarteka gidioak idazten dituelarik. Film laburrekin nazioarteko jaialdietan saritua eta aukeratua izan da, besteak beste, Islandia, Alemania, Hungaria, Frantzia, Italia, Grezia, Kolonbia, Argentina, Bolibia, Txile, Estatu Batuak...

■ **Sinopsia.** Haur batek errespetua zer den ikasiko du, miresmenaren bitartez.

■ **Urtea.** 2007.

■ **Hizkuntza.** Mutua.

■ **Iraupena.** 4 minutu.

'Berde'



■ **Egilea.** Jose Luis Barredo eta Iñigo Garcia.

■ **Sinopsia.** Bilbon grabatua izan zen 2006ko abenduan, eta muntaketan 2008an egin zuten. Hainbat jaialditan parte hartu du, eta saritua ere izan da. Bikote bat lagun afari batera doa kotxean, eta hor gertatzen denari buruzkoa da.

■ **Urtea.** 2007.

■ **Hizkuntza.** Euskara.

■ **Iraupena.** 8 minutu eta 40 segundu.

'Egiatik gezurrezko bizitzara'



■ **Egilea.** Ostegunean afaria zure kontu taldea: Ander Odriozola, Iñaki Andonegi eta German Rubio. Lan desberdinetan elkarrekin aritu ondoren, berehala sortu zen elkar ulertze mailaren adibidea, iazko Kameratoian lehen saria jaso zuen film laburra: *Egiatik gezurrezko bizitzara*.

■ **Sinopsia.** Gazte bat bere patuari azalpena aurkitu nahian dabil. Egia aurkitzeko loturak bilatu behar dira.

■ **Urtea.** 2008.

■ **Hizkuntza.** Euskara.

■ **Iraupena.** 3 minutu eta 57 segundu.

'Poema baten irakurketa Euskal Herrian'



■ **Egilea.** Xabier Iñarrairegi eta Karlos Eriz.


■ **Sinopsia.** «Ezer ez da aldatu. Gorputza mingarria da; jan egin behar du, lo egin behar du, arnasa hartu». Horrela hasten da Wislawa Symbroska idazle poloniarak idatzitako poema; horrela hasten dira irakurtzen ere torturak jasan dituzten hainbat euskal herritar. Torturaren Aurkako Taldeak ekoiztutako lana da.

■ **Urtea.** 2008.

■ **Hizkuntza.** Euskara.

■ **Iraupena.** 12 minutu.

'P.D. Ondo ibili'



■ **Egilea.** PuntutapArte Produktzioak taldea: Yera Sanchez, Xabier Zapirain, Maite Leizaola, Iñaki Zapirain, Muxi Lopetegi eta Garazi Urdanpilleta. Taldearen jatorria Daltoniko Anonimoak kolektiboan dago, 2002an. Arte Ederretako fakultateko ikasle batzuek sortua.

■ **Sinopsia.** Leirek munduari bira eman nahi dio baina ezin du. Irudimena erabiliko du bisitatu nahi dituen hiriak Donostian bertan aurkitzen.

■ **Urtea.** 2008.

■ **Hizkuntza.** Euskara.

■ **Iraupena.** 2 minutu eta 45 segundu.

'Bankuaren lapurreta'



■ **Egilea.** Iñigo Aranbarri, Olatz Arriola-Bengoa, Kimetz Blanco, Txaber Fernandez, Julene Larrañaga, Txaber Larreategi, Josu Martinez.

■ **Sinopsia.** Hiru mafiosok Bilboko banku bat lapurtu nahi dute eta horretarako plan «eraginkor» bat jartzen dute martxan.

■ **Urtea.** 2008.

■ **Hizkuntza.** Euskara.

■ **Iraupena.** 3 minutu eta 15 segundu.

Vendetta eta Stupenda Jones bihar, zuzenean, Bonberenean

Tolosa » Asteburu luzea hasteko lau kontzertu entzuteko aukera izango da; gaur, Underdidfectaz eta Makulu Kenen txanda.

ERREDAKZIOA

Asteburuetan, Bonberenean kontzertuak izatera ohituta gaude, baina oraingo honetan, zubia aitzaki hartuta, aurreratu egin dira, eta gaur nahiz bihar izango dira zuzenekoak.

Gaur, 22:30etik aurrera, Underdidfectaz eta Makulu Ken izango dira eszenatoki gainean. Makulu Ken-ekoak Lasarte-Oriatik datoz beraien reggae doinuak aurkezteko asmoz. Erritmo beroak, musika beltzaren reggae, funk edo afrobeataren eragin handiko abestiak jotzen dituzte. Honela, dantza egiteko aukera izango dute Bonberenean gerturatzen direnek. Underdidfectaz-ekoek berriz, konpainia ona egingo diete lasarte-arrei.

Bihar taula gainean, Vendetta eta Stupenda Jones

Asteburu luze honetako kontzertu nagusia bihar izango da. Alde batek, Vendetta izango da eszenatoki gainean. Hauek, taldearen izen bera daraman diskoakaleratu dute duela hilabete inguru, eta hau aurkeztuko dute Tolosan. Swing, ska gogorra, ukitu latinoak ere badira,



Vendetta taldeak bere lehen lana aurkeztuko du bihar. HITZA

reggae-a... aurkitu daitezke beraien lehendabiziko lanean. Guztira 13 kantu daude diskoan eta horietatik bi, bertsiok dira: *Everyday* eta *The munsters*. Festa kutsuarekin eta umorez egindako letrak daude eta ironia pixka bat ere badute.

Eskarmentu handiko musikariak daude Vendettan, izan ere, lau kide Skalariak taldean aritutakoak dira: Jabier Etxeberria, Luisillo Kalandraka, Ruben Anton tronpetista eta Enrike Rubiños.

Stupenda Jones Araba eta Nafarroaren arteko mugan sortu den harrobiko rock taldea dugu, La Polla Records, Los del Rayo edota Katotiko bezalako talde handiek ere osatzen dutena. Haiek Sakanako Olazti herrikoak dira, eta bi hizkuntzetan moldatzen dira: euskaraz eta gazteleraz.

Bere lehenengo kantuak 2004an argitaratutako *Osti bi* izeneko diskoan grabatu zituzten, Brigada Criminal taldearekin partekatutako CDan. Oraingoan lan berria besapean dutela datoz, taldeak bakarrik argitaratzen duen lehenengoa: *Etorkizuna lehertu*. Hau rock kaletar estiloko lana da.

Gluecifer, Hellcopters edo Turbonegro tankerako taldeek jorratzen dutenaren antzera. Hamaita kantuk eta bideo pista batek osatzen dute erritmo eta aldaketa biziko diskoa, rock & rollaren gordintasuna erakusten duena, xume eta indartsua aldi berean, eta hitz zuzen eta konprometitua abestuta. Aurreko grabaketaren ildotik datur Stupenda Jones lan berri honetan, nahiz eta orain estilo zein soinua sendoago eta landuago erakusten duten.

Berdintasunaren logoa aurkitzeko lehiaketa

Tolosa » Udalak martxan jarri du ekimen hau, berdintasunaren aldeko logotipoa diseinatzeko; 400 euro irabazi daitezke.

ERREDAKZIOA

Berdintasunaren aldeko logotipoaren bila dabil Tolosko Udala. Hori dela eta, lehiaketa bat jarri du martxan, hau diseinatzeko. Egitasmo hau gazteei zuzenduta dago, eta irabazleak 400 euro poltsikoratuko ditu.

Ordenagailuarekin, eskuz margotuak edo nahi den formatoan aurkez daitezke lanak. 13 eta 25

urte bitarteko gazteek har dezakete parte lehiaketan. Lanak bi gutunazaletan aurkeztu beharko dira. Lehenengoan, logotipoa eta goitinez jartzea eskatzen da, eta bigarrenean, goitizena, izen-abizenak, NANaren fotokopia, helbidea eta harremanetarako telefono bat edo helbide elektronikoa. Lanak maiatzaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira, eta ebazpena urriaren 9an emango dute jakitera.

Epaimahaia ondorengoek osatuko dute: Onintza Lasa Berdintasun zinegotziak; Joselu Andueza Gazteriako zinegotziak; Nerea Cereda Gazteriako teknikariak eta Joseba Iturriz Berdintasun teknikariak.



Tolosalde IKTko igerilariak marka onak lortu zituzten Legazpin. HITZA

Dr. Flemingeko neskak bigarren, Gipuzkoako Eskolarteko Jokoetan

Villabona » Irungo Arteleku kiroldegian jokatu zen alebinen mailako saioak; eskualdeko hiru taldek hartu zuten parte.

ERREDAKZIOA

Eskolarteko taldekako jokoak izan ziren asteburuan, Irungo Arteleku kiroldegian. Igandean, alebinen txanda izan zen. Villabonako Dr. Fleming ikastolako eta Jesusen Bihotzako ikasleek parte hartu zuten txapelketan. Bakoitzetik mutil talde bana joan zen, eta lehendabizikotik, nesken beste bat ere bai.

Mutiletan, Jesusen Bihotzatik, Egoitz Sarasua, Iker Sarasua eta Asier Zubeldia bosgarren geratu ziren, final-laurdenetan atzean geratu ostean, Segurako Laiotz ikastolakoen aurka. Bestalde, Dr. Flemingeko Unai Maiz, Imanol Fernandez eta Pablo Dieguez lehendabiziko kanporaketan erori



Ainhoa Atxaga eta Elixabet Mosqueira bigarren geratu ziren. HITZA

ziren. Honen ondoren kontsolazioko koadroaren ostean, 13. postua lortu zuten.

Dr. Flemingeko neskak izan ziren emaitza onenak lortu zituztenak. Ainhoa Atxaga eta Elixabet Morqueirak Zestoa B eta Urdaneta ikastolako taldeak gainditu eta gero, finalera iritsi ziren.

Azken proban, Zestoa Akoen aurrean, urduri jarri ziren eskual-

dekoak eta zilarrezko dominarekin etxeratu ziren. Emaitza hauen ostean, balantze baikorra egiten dute Olaederra Mahai Teniseko taldekoek. Parte-hartzaile asko izateaz gain, sari garrantzitsuak lortu baitituzte aurten.

Igandean honetan, hilak 22, Gipuzkoako eskolarteko jokoak izango dira toki berean. Baina oraingoan, infantilen mailan.

17 domina eskualdeko igerilari gazteentzat

Tolosa » Neguko Euskal Herriko txapelketan lehiatu dira Tolosaldea IKTko 12 igerilari; dena 8 urrezko domina irabazi dituzte.

ERREDAKZIOA

Neguko Euskal Herriko Igeriketa Txapelketa jokatu zen Legazpin asteburuan. Bertan izan ziren Tolosaldea Igeri Kirol Taldekoak. Infantilen mailan aritu ziren eta eskualdeko 12 igerilari hartu zuten parte. Denera 17 domina irabazi zituzten Tolosalde IKTkoek. Horietatik zortzi urrezkoak, 6 zilarrezkoak eta 3 brontzezkoak. Eskualdeko igerilariak oso ongi aritu

ziren, eta maila oso ona erakutsi zuten.

Tolosalde IKTko igerilarien eguneroko lana fruituak ematen ari da, eta kalitatezko markak ari dira egiten. Zortzi gazte lehiatuko dira Valladoliden jokatu diren Espainiako Neguko Jokuetan. Marta Alonso, Olaia Cuadrado, Maria eta Ane Manso, Jokin Otaegi, Iñaki carrera, David Rodriguez eta Iñigo Prada hain zuzen ere.

Irurako Udala

IRAGARKIA

Aletzetak, 2009ko martxoaren 10eko Erabakikuntzaren bidez, onartu zuten:

a) Irurako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren HII,3 (Manufacturas Isaskun) unitates Hirartzeko Jarduera Programa.

b) 2009ko otsailaren 17an Irura Eraikuntzak, S.L. enpresarekin zuzenpututako hirigintza Hitzarmena.

c) 2009ko urtarilaren 26an, Irura Eraikuntzak, S.L. enpresak Fermin Lizarazu notarioaren aurrean egindako Borondateko Birpartelazioak Agiria.

Hori dela eta jendaurreko informazioak gai ezartzen da, iragarri hau Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunaren bitarmonetik 20 egun eraginor iraganen arte.

Irura, 2009ko martxoaren 17an
ALKATE-LEHENDAKARIA

KEY-LAN

Sartzailegintza

Nafarroa etorb. 113 behean - TOLOSAN
Mag.: 678 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13

60 aizkolaritik gora, Banakako Aizkolari Txapelketan

Leaburu-Txarama » Anjel Arrospeidek ere hartuko du parte eta hiru maila izango dira; urrezkoa, 23 urte azpikoak eta juvenilak.

ERREDAKZIOA

Aurtengo Bakarkako Aizkolari Txapelketan 2008ko txapelketan sailkatutako lehen sei aizkolariek hartuko dute parte, tartean Leaburu-Txarama Anjel Arrospeide, nahiz eta oraindik ere izena eman daitekeen.

Horiek horrela, 60 aizkolarik

hartuko dute parte hiru mailatan; urrezkoa, 23 urte azpikoak eta juvenilak. Munduko edozein aizkolarik har dezake parte txapelketan, edozein mailatan, baina baldintza batekin: kirol-zigorrik ez edukitzea.

Txapelketaren antolatzaile den Egur Sporten batzorde teknikoak osatuko du epai-mahaia eta maila bajeenetik hasita izango dira kanporaketak.

Urrezko mailari dagokionez berrikuntzarik ere izango da, izan ere aipatu mailako lehen kanporaketeta finalurrekoen ligaxkan parte hartuko duten bi aizkolariekin



Arrospeide 2007ko Urrezko Aizkolari Txapelketan. IMANOLOTEGI/ARGAZKI PRESS

amaituko dira. Ligaxka honetan hiru aizkolarik osatutako lau taldek hartuko dute parte, hamabi guztira.

Ligaxka honetan 2008an sailkatutako lehen sei aizkolariek ere hartuko dute parte: Nazabal, D. Larretxea, Arria V, Lz. Azpilikue-ta, Olasagasti eta Arrospeide leaburutarra.

Mikel Mindegia ere ariko da eta baliteke, gainera, bere azken aizkolarit txapelketa izatea. Ligaxkan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako irabazleek ere hartuko dute parte, Zubiaga, Atutxa II eta Azurmendi, hurrenez hurren, eta baita aurreko fasean sailkatzen diren bi aizkolariek ere.

Izena emateko aukera

23 eta 18 urte azpikoen mailetako kanporaketak aurreko urteetan bezala izango dira.

Horiek horrela, antolatzaileek esan dutenez, oraindik ere izena emateko aukera dago.

Kanporaketaren bat izan nahi duten herriek ere oraindik badute aukera egiteko.

Ramon Olasagasti Makalura joango da hilaren 30ean

Berrobi » Alberto Iñurrategi, Mikel Zabalza eta Juan Vallejoekin batera joango da; bere da komunikazio arduraduna.

ERREDAKZIOA

Ramon Olasagasti berrobitarra Alberto Iñurrategi, Mikel Zabalza eta Juan Vallejo mendizaleekin batera aterako da hilaren 30ean Makalura mendiruntz.

Basque Team Desafioa fundazioak bultzatutako espedizioa da eta Olasagasti komunikazio arduraduna izango da, izan ere *Kirolez Blai!* izeneko blogean jasoko dute egunero egunero bidaiaren inguruko xedapenak. «Nire lana oinarritzko kanpamendutik berri guztiak jaso eta idaztea izango da, irudiak hartu eta editatu... komu-

nikazio lana, azken batean», esan du Olasagastik.

Bosgarren mendirik altuena

Helburua 8.463 metro dituen dituen Himalayako Makalu edo Beltzaran Handia mendiko Mendebaldeko Zutoina igotzea da, munduko bosgarren mendirik altuena, hain zuzen. Igoera gainera, alpino erara egingo dute, hau da sokarik eta kanpamendurik gabe, dena gainean dutela aterako dira, hortaz, kirolariak.

Mendizaleak hilaren 30ean irteango dira Euskal Herriatik eta oinarritzko kanpamentura apirila erdian iritsiko dira.

Apirileko bigarren hamabostaldian aklimatazioa egingo dute eta Baruntse igotzen ere saiatuko dira. Maiatzeko bigarren astean saiatuko dira Makaluko Mendebaldeko Zutoina igotzen.

'Arri'-ren heriotzaren 10. urteurrena gogoan hartuz

Ibarra » Arbuzun meriendatu zuten, Usabaleko sagardotegian afaldu eta ondoren kontzertua ere izan zuten.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Langostino Moto Kultur Elkartekok ekitaldi ugari antolatu zituzten pasa den larunbaterako, izan ere egun horretan elkarte-ko kide izandako Jose Ignacio Arrieta *Arri* hil zeneko 10. urteurrena zen eta omenaldia egin nahi izan zioten.

Merienda, afaria, kontzertua...

Eguna 16:00etan hasi zuten Anoetako Saloon Radikal Bikerretik, handik Arbuzura joan ziren herriko elkarte batean meriendatzeko.

Ondoren Tolosara itzuli ziren eta bertan Usabal sagardotegira joan ziren. Behin afalduta Saloon



Motorzale asko bildu zen larunbateko irteeran. HITZA

Radikal Bikerreko kontzertua bat ikustera joan ziren. Kontzertuaren erdian, gainera, *Arri*ren familiari bere omenezko plaka bat eman

zioten. Aipatu behar da kontzertura eta irteerara Lleidako, Tarragonako, Bilboko eta Ribaforadako lagunak ere gerturatu zirela.

Nafarroako Iñurrieta upategira joateko irteera antolatu dute

ERREDAKZIOA

Ibarrako Azokako Ardozaleen Txokoak Nafarroako Iñurrieta upategira joateko irteera antolatu du hilaren 28rako, larunbata.

Goizeko 09:30ean aterako dira Ibarrik eta iluntzean itzuliko

dira. Tiketek 15 euro balio dute eta horrekin hamaiketako, autobusa eta bazkaria ordainduko dituzte.

Izena eman nahi duenak herriko Azoka izeneko dendan egin behar du (Euskal Herria kalea, 45 zenbakia).

Iñurrieta upategia Nafarroako Faltes eta Miranda Arga herrien artean dago eta bertako ardo gorri zein txuriak fruta-gustukoak izaten dira. Ardo beltzek, aldiz, upeletako haritz zapore fina izan ohi dute.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Epaketetan oinarritzen den 'Txanobarragorri' antzezlan gaur

Villabona » Azeri taldearen lana da eta Ander Lipusek hartzen du parte; une hunkigarriak eta kritikak daude tartean.

ERREDAKZIOA

Gaur, *Txanobarragorri* antzezlan izango dute Villabonako Gurea aretoan 22:00etan. Prezioa 5 eurokoa izango da. Hernaniko artistak biltzen dituen antzezlan da. Azeri taldeak bultzatuta sortu den antzezlan honetan, antzerkia, dantza, irudiak eta musika uztartu dituzte. Tartean hermaniar ugari aritu dira lanean: batzuk ahotsjarriz, beste batzuk antzezituz, ikusentzunezkoak osatuz...

Ibon Arregi, antzerkia osatu duen Azeri taldeko kidea, Ander Lipus aktore nagusia, Joxan Goikoetxea musikaria eta Rosa Lujanbio bioikozketa lanetan ariko da besteak beste.

Makroprozesuetan oinarrituta

Oraingo hau epaiketeta eta makroprozesuetan oinarritutako antzezlan da: «Ez dago makroprozesu



'Txanobarragorri'-n maskarak erabiltzen dituzte. N. LEGARRETA (HERNANIKO KRONIKA)

jakin baten kronika, baina prozesu horietan dago oinarrituta. Terrorismo kontzeptuaren abusuaren kritika bat da».

Antzerkian pantaila bat izango da, eta taula gaineko eszenak eta pantailako irudiak tartekatuko di-

tuzte. 19 aktotan zatituta dago, eta horietatik 10 eskenatokiak egingo dira, eta beste bederatzia, pantailan. Taula gainean, esan bezala, Ander Lipus izango da eta hiru pertsonaia antzeztuko ditu. Pedro Ormazabalak egindako papinak

ikusteko aukera izango da. Txaro Unzilla dantzariak hiru ageperen egingo ditu ere. Pantailako irudiak Joxan Ruizek osatu ditu, errealizadore eta kamera lanetan.

Antzerkiaren sinopsia

«Epaile bat fanatikoa da, bestea on itxurako agurea da, eta bestea normal antzekoa». Horretaz gain, lipusek aipatu zuen karetekin lan egiten duena eta erronka artistikoa izan dela azpimarratu zuen. «Herri antzerkia eta amateur mailako antzerkia gauza bizia da, errealitate gertu daude eta errealitateari buruz hitz egiten dute». Antzerkiko hainbat eszena hunkigarriak izan daitezke: kartzelako bizimodu ikusten da batzuetan.

Gualdilandia estatuan kokatzen da. Auzitegian lau zuruteko epaitzen ari dira, koloretzuegiak izatea leporatuta. Batek txano berde bat darama, beste batek laranja, hirugarrenak urdina eta neska batek, beltza. Liburukote nagusiaren arabera, inor ezin da beltzez jantzi, eta horregatik auzipetu dituzte. Koloretako txanoak daramatzateneke zera diote, euren txanoak ez direla beltzak...

Larunbatean izango zen Haur Kantariko Kanporaketa, bertan behera

Villabona » «Zubia izanik data txarra» da, «asko kanpora joaten direlako: pena izan da»; ondorioz, ez da antolatuko.

ERREDAKZIOA

Haur Kantari Jaialdiko bi kanporaketa ospatu behar ziren hasiera batean, baina azkenean Villabonan larunbatean egin behar zena bertan behera gelditu dela eman dute jakitera.

Ainhoa Ansa Euskal Kantuzaleen elkarteak koordinatzaileak jakitera eman du albiste. Atzo arte eman zitekeen izena parte hartzeko, eta ordu arte itxaron dugu. Bagenekien jendeak kale egingo zuela datengatik, zubia luzea delako, baina aurrera jarraitu genuen. Pena izan da baina hala gertatu da».

Irakasle, prestatzaile nahiz gurasoek data ikustean konpromisoa ez hartzea ikusi dute egokiena.

Korrika 16ren aldeko Mus Txapelketa gaur izango da, Intxurren

ERREDAKZIOA

Gaurko Mus Txapelketa antolatuta du Korrika batzordeak Alegian, Intxurre elkartearen. 10 euro ordaindu behar da parte hartzeko eta irabazleentzat sariak egongo dira. Korrikari laguntzeko izango da ekitaldi hau, 22:00etan hasita.

Hilaren 26an *Bidaia intimoak* (aurtengo Korrikak omenitutakoen inguruko dokumentala) botako dute Kultur Etxean 19:00etan. Hilaren 29an herriko plazan korrikaren aldeko hamaiketako izango da. Hauek dira antolatutuzten ekitaldiak. Herriarrek bertan parte hartzea Korrikaren alde egitea izango da.

Esnearen prozesua ezagutzeko txangoa

Baliarrain

» Guraso Elkarteak antolatuta Irabi baserrira joango dira haurrak eta gurasoak datorren larunbatean.

NEREA URBIZU

Datorren larunbatean, Baliarraingo Guraso Elkarteak antolatutako martxoako ekitaldia izango da. Kasu honetan, Irabi baserria bisitatuko dute. Bertan, oinez joanda ikuilua, animaliak eta instalazioak gertutik ikusiko eta ezagutuko dituzte.

Jon Garmendia arduratuko da azalpenak emateaz eta gehienbat esnearen prozesuaz ariko da hiz-

ketan: behiak nola jeitzi, esnearekin zer egiten den eta abar ikusiko dute bertara joango direnek.

Ondoren, elkartera bueltatuko dira eta Irabiko esnearekin postreak egingo dituzte bertan jateko: arroz esnea, natillak... Postreen aurretik, noski, afari-merienda izango dute.

Xedea, gurasoek eta haurrek elkarrekin zerbait egitea

Guraso elkartearen helburu nagusia haurrak gutxienez hilabetean behin elkartzea da, biltzea. Ludotekan astean behin ere egoten dira, baina horrez gain, gurasoek umeekin zerbait egitea proposa ikusten zuten gurasoek. Esaterako, azaro partean, taloak ikasteko ikastaroa



Irabiko animaliak, instalazioak eta esnearen prozedura ikusiko dituzte. A. ARTOLA

antolatuta zuten eta giro bikaina izan zuten frontoi inguruan.

17:00etan Irabi baserrira joateko plazan elkartuko dira eta oinez igoko dira bertara, egingo duen eguraldi ona aprobetxatuz. Hel-

burua, hasiera batean, haurren eta gurasoen artean gutxienez hilean behin elkarrekin zerbait egitea bada ere, herri guztia dago gonbidatuta, irekiak baitira Guraso Elkarteak antolatutakoak.

U Urteurrenak

V. urteurrena
JUAN JOXE AMENABARRO ITURRIOZ

Gure bizitzei, zentzua ematen jarraitzen duzulako
Jarraituko dugu
Beti maiteko zaitugu, attona

ESTI, MARI, LANDERETA JOXE

VILLABONAN
2009ko
martxoaren 18an

I. urteurrena
JUANJO

Nahi gure artekin urrutira joan beti izan zaitugu gure bihotzean gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizi garen bitartean EZ ZAITUGU AHAZTUKO

Amarozko zure lagunak

AMAROTZEN
2009ko
martxoaren 18an

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAN jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tososaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tososaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tososaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tososaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tososaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tososaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tososaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tososaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tososaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Hitzaaldia

■ **Ibarra.** Aitor Zulaika eta Eder Pizkazak Proyde-Proega GKEarekin Argentinan izandako esperientzia azalduko dute parrokiako lokalean 20:00etan.

Antzerkia

■ **Villabona.** Txanobarragorri antzezlanaren Gurea aretoan 17:00etan.

Musika

■ **Tolosa.** Underdidectaz eta Nalvulo ten kaldeen kontzertua Bonberenean 22:30ean.

Irteerak

■ **Tolosa.** San Jose zubirako Tuc de Mulleres eta Besiberrira (Aran bailara) irteera antolatuta du Oargi mendiko elkarrekin. Izen-ematea, elkarrekin.

Deialdiak

■ **Alkiza.** Gizonezkoentzako afaria Sarasola Sagardotegian 18an, Aitarren Eguna dela eta. Izen-ematea Elizegi tabernan. Afalostean mus txapelketa antolatuta da Elizegi tabernan afarira joan direnen artean.
■ **Anoeta.** Alkartasuna biltokiak Baztanera bidaia antolatuta du apirilaren 16rako: kobazuloak, likore-fabrika, gaztandegia eta txokolategia bisitatu, ondoren bazkaria. Bazkariak eta autobusak, 28 euro (30 euro ez denarentzat). Izen-ematea, biltokian.
■ **Albiztur.** Hilaren 28an Adunako Aburuza sagardotegira irteera autobusez, ondoren Hernanira joateko aukerarekin. Afaria eta autobusa, 33 euro. Izen-ematea, udal-txean.

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatutako elkartek Tenerife hegoaldera apirilaren 17tik 26ra irteera antolatuta du 670 eurotan (ez bazkideek 676 euro). Izen-ematea, elkarrekin.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Sida/Ihesa 8 artista 8 hausnarketa Aranburu Jauregian.
■ **Tolosa.** Oteiza, bizirako proiektua Aranburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 67 36 49.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan iritziaren erantzukizunik.

Pajaritarekin bada, noiznahi

Bedaio » Emakumearen Nazioarteko Eguna gogoratzeko prestatutako afaria izan zuten 54 emakumek.

NEREA URBIZU

Bedaion pajarita eta guzti azaldu ziren bertakogizonak. Dena, Artubi elkarrekin prestatutako afarira joan ziren 55 emakumeei jaten emateko. Emakumearen Nazioarteko Eguna gogoratzeko egin zuten. Artubi elkarrekin giro ederrean egon ziren denak.

Emakumeek eraman behar zuten postrea zen. Lehiaketa ere antolatuta zuten Artubi elkarrekin, postrerik onena ia nork prestatu, baina horren zaila izan zen, ez zutela saririk eman. «Asmoa postrerik onena eta politenari saria ematea zen baina ez zen posible izan, oso zaila baitzen aukeratzea». Emakume bakoitzak bere postrea eraman zuen: batzuk razio bakanrekoa eta beste batzuk tarta handiagoak. Arzak jatearekin bertan baino menu goxoagoa jan zutela diote emakume batzuk... Eta datorren urtean berdina espero dute...



Goian, sukaldean lanean aritu zirenetako batzuk, eta beheran, emakume batzuk postreak dastatzen. HITZA

A Agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak
ezkontzak - jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak agurrak

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzan: Udaletxeko bulegoa

zidak
elastikoak
jertseak
fularrak
buffak...

Jantzi dotore, jantzi hitza.

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info

TXOKA hitza info

sarrerak

saridunak

AKABA BERA BERA BM Parc Sagunt

Gaur, asteazkena • 19:00etan
Donostiako Bidebieta Kiroldegian

Garbiñe Mujika (Villabona)
Felix Irazustabarrena (Alegia)

sarrerak Hitzaren egoitzan harpidedun txartelarekin